

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### Behin betiko onestea 2021eko aurrekontu orokorra

Bat etorri Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legeak 150.1 artikuluan xedatutakoarekin, eta ez denez ez erreklamaziorik ez oharrik aurkeztu 2021eko ekitaldirako aurrekontu orokorrari hasierako onespina eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da; hau da laburpena, kapituluka:

#### Gastuen egoera

KAPITULUA		ZENBATEKOA
I	Langile gastuak	266.805,00 euro
II	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	498.791,00 euro
III	Finantza gastuak	2.000,00 euro
IV	Transferentzia arruntak	326.050,00 euro
V	Kreditu orokorra eta aurreikusi gabeko beste batzuk	21.385,00 euro
VI	Inbertsio errealak	53.050,00 euro
VII	Kapital transferentziak	25.000,00 euro
<b>Gastuak, guztira</b>		<b>1.193.081,00 euro</b>

#### Sarrereren egoera

KAPITULUA		ZENBATEKOA
I	Zuzeneko zergak	487.895,00 euro
II	Zeharkako zergak	30.000,00 euro
III	Tasak eta bestelako diru sarrerak	163.921,00 euro
IV	Transferentzia arruntak	465.102,00 euro
V	Ondare bidezko diru sarrerak	27.648,00 euro
VI	Inbertsioak besterentzea eta beste diru sarrera batzuk hirigintzako jarduketan ondoriozkoak	3.000,00 euro
VII	Kapital transferentziak	15.515,00 euro
<b>Gastuak, guztira</b>		<b>1.193.081,00 euro</b>

Erabaki honen aurka, zeinak behin betiko onesten baitu udal honen aurrekontu orokorra, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Dena dela, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalbatzari erabaki honen aurka, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**1. eranskina**

Lanpostu zerrenda

Funtzionarioak:

1. 1. Lanpostuaren izena: Idazkari-kontuhartzailea.

- Plazak: 1
- Eskala: Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioak.
- Azpieskala: Idazkari-kontuhartzaileak.
- Eskatutako titulua: Graduko unibertsitate titulua edo baliokidea.
- Betetzeko era: Lehiaketa.
- Administrazio egoera: aktiboan.
- Arduraldi araubidea: Osoa.
- Hizkuntza eskakizuna: 3, derrigortasun datarik gabe.
- Taldea: A1/A2

– Destino-osagarriaren maila: 30

– Berariazko osagarria: 18.133,25

2. 2. Lanpostuaren izena: Administraria.

- Plazak: 1
- Eskala: Administrazio Orokorra.
- Azpieskala: Administrariak.
- Eskatutako titulua: Batxiler titulua edo teknikoa.
- Betetzeko era: Lehiaketa.
- Administrazio egoera: Hutsik.
- Arduraldi araubidea: Osoa.
- Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun data: 2020ko otsailaren 24a.
- Taldea: C1

– Destino-osagarriaren maila: 17

– Berariazko osagarria: 18.589,00

3. 3. Lanpostuaren izena: administrari laguntzailea.

- Plazak: 1
- Eskala: Administrazio Orokorra.
- Azpieskala: laguntzaileak.
- Eskatutako titulua: DBHko graduatu titulua.
- Betetzeko era: Lehiaketa.
- Administrazio egoera: Hutsik.
- Arduraldi araubidea: Osoa.
- Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun data: 2017ko abenduak 22.
- Taldea: C2

– Destino-osagarriaren maila: 16

– Berariazko osagarria: 14.533,49

Lan kontratudunak:

1. Artxibozaina-administraria.

– Plazak: 1

– Administrazio egoera: aktiboan. Iraungitzeko.

– Arduraldi araubidea: Osoa.

– Udalhitz maila: 11

Dura, 2021eko otsailaren 1a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTEPARA URIBE*